

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 181. alea - 2014ko urtarrila

Omenaldia jaso du Agirregabiria txingalariak






OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



RPS: 183/12

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel. faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A
D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teletelne.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Uste gustian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 • 618 664 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Bordatxo
JATETXEA

Berezitasuna Parrilan:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea
Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:

Ander Salegi

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutzaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Banaketa arduraduna:

Juanma Oartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZUNTZA POLITIKA,
ETA ELKARREKOLAKA
HEZKUNTZA POLITIKA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA,
Ministerio de Política Lingüística y Cultura



Gipuzkoako
Foru Aldundia

aurkibidea

05-06

Mikel Aizpurua, "Moda-modako literatura" eta Debako Gazte Asanblada, "13. urtemuga, iruditan".

08-09

ALBISTEA

Zoro Feria 2014, Urrezko Aizkora eta Juan Jose Agirregabiriari omenaldia



10

KRONIKA

Gabon bereziak
Gaztelekuan!!!



15

ALBISTEA

Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariaren hitzaldiarekin abiatu zen Animadeba jaialdia



Ander Salegi

16-17

LABURRAK

V. San Silbestrea,
Urteberriko idi-probak,
Olentzero eta Mari Domingi...



18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Gazte guztion iritzia ezinbestekoa delako, zatoz Debako Gazte Mugimenduaren eztabaida prozesura!

Ez da gauza berria garai zailak bizitzen ari garela esatea, ezta egoera honen aurrean erantzunik ez emateak ekarriko dizkigun kalteak gogoraraztea ere. Denbora pasa ahala ohartzen ari gara zein punturaino iritsi daitezkeen etorkizunean bizimodu lasai bat egiteko aurki ditzakegun oztopoak, eta argi eta garbi dago aldaketa hauek lehen eskutik jasango ditugunak gazteok gara. Irtenbide bakarra, hausnartu, elkartu, antolatu eta gure eskubideengatik borrokatzea dela denok dakigu.

Gertuko harremana dugun herri honetan alternatibak bilatu behar dizkiogu gazte problematikari; gure esku dago sortzen dizkiguten arazoei aurre egitea eta ez dago lorpenik masan borrokatu gabe.

Nahiko arrazoi daude Debako gazteriak aktibazio beharra duela adierazteko; baina, gazteon artean antola-

kuntzarik ez egoteak blokeo egoera batera eraman gaitu, eta, honela, ez dago helburuak betetzetik.

Agian informazio eza edo interes falta izan daitezke gure etorkizuneko egoeraren aurrean desadostasunik ez erakustera eraman gaituzten arazoak; baina, errealitate oso ezberdin batekin aurkituko gara kalean.

Horrela, lehengo urtean, adin ezberdineko Debako gazte batzuekin batu ginen eta, herri honetako gazteok ditugun beharretan oinarrituz, eztabaidari ekin genion. Eztabaida oso interesgarria izan zen; bertan herriko problematikaren ardatz diren hainbat gai landu baike nituen. Baina, guztion parte-hartzerik gabe ez dugu sekula jakingo zeintzuk diren gazteon nahi edo beharrrak. Beraz, iniziatiba hau herrira zabal-tzea ideia ona dela iruditu zaigu.

Aurreko bilgunean atera ziren

edo gehien larritu gintuzten gai nagusiak, egoera ekonomikoa, etxebizitza eskubidea, hezkuntza baldintza berriak, gazte mugimenduaren gabeziak, feminismoa, aisialdia eta kultura izan ziren.

Hau guztia ardatz bezala erabiliz, lehen pausoa herriko egoeraren diagnostikoa egitea dela bururatu zaigu, gazteok ditugun gabeziak identifikatuz herri aktibazioa xede dugularik.

Gazte guztion iritzia ezinbestekoa delako, herriko problematikari guztion artean sorturiko erantzun bat eman behar diogulako, Debako Gazte Mugimenduaren eztabaida prozesuan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu. Batzarrak urtarrilaren 25ean eta otsailaren 8an izango dira, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

Debako Gazte Mugimendua

Gure esku dago

Kanta zaharrak dioen bezala ura bere bidean doa.

Goi mendietako ur xirripa kanpo emariz ibaitu da.

Mugarik ez jarri urei utzi libre beheratzen,

milaka urtez egin legez.

Guk ez dugu aldarri egiteko heroi edo konkistarik.

Borondateak elkartzen gaitu, herri izan nahiak.

Hormak eta harresiak ez ditugu maite, elkarrekin bizi nahi dugu, soilik.

Ez dugu beste inor mendean hartu nahi, etorkizuna hautatu, ez besterik.

Har dezagun bidea, gure esku dago eta. Milaka lagun oinez, eskutik oratuta.

Jende zoriontsua, herri libre batean.

HERRI LIBRE BATEAN!

Hiritar desberdinak ametsak ditu biltzen: etorkin, arrantzale, langabetu, ikasle, nekazari, langile, musikari, idazle, erretiratu, ume.

Deialdia

Abian jarri nahi dugu dinamika herritar demokratiko bat eta, horretarako, Debako eremu eta sentsibilitate desberdineko herritarrei deitzen diegu GURE ESKU DAGO-ren LANTALDE bat osatzeko, elkarrekin erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldiak aurrera eramateko eta, ekainaren 8an, Durango-Iruñea gizakatea denon artean egiteko. Otsailak



7, ostirala, arratsaldeko 8etan, Kultur Elkartean.

ETOR ZAITEZTE

HERRI LIBRE ETA DEMOKRATIKO BATEAN BIZI NAHI DUGU ETA!

Joxeluis Aldasoro

MIKEL AIZPURUA

MODA-MODAKO LITERATURA

Literatura modan dago Euskal Herrian. Juan Mari Torrealdaik urtero egiten duen euskaraz argitaratutako liburuei buruzko txostenaren berri duena harrizko du hasierako baieztapen horrek. Izan ere, euskarazko literatur liburu kopurua jaitsi egin baita azken urtean. Hala ere, berriz diot, euskal literatura modan dago. Azken produkzio arrakastatsuen 13500 aleak berehala saldu ziren eta haren kopiaz ehun mila pertsonatik gora gozatu ziren (obraren pasarte batzuk 300 milak ere bai).

Ahozko literaturaz ari naiz, noski, eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaz. Bertsolaritza literatura baita. Kanpoko edozein, eta bertako asko ere bai, harri eta zur geratzen da BEC-eko datuak emanda. Nola da posible 13.500 pertsona goizeko 11:00etatik gaueko 20:00etara poesia entzuten egotea? Zenbat liburu iristen dira 10.000 ale saltzera?

Inork esango du ez dela berdina irakurtzea eta entzutea. Ados. Baina, bertsolariek finalean bat-batean sortu zituzten testu asko, aste bete emanda, neuk idazteko ahalmena izan nahiko nuke. Hala ere, hari mutur honek badu korapilo txiki bat. Bertsoa belarrietatik sartu behar da eta entzun ahal ulertu. Batzuetan, iruditzen zait, bertsoa, entzun ahala, idatzita "ikusit" behar dugula gure buruan zuzen ulertu behar badugu. Hala, bertsoaren doinuak estaltzen dituen, komak, harridura ikurrak eta gainontzeko elementuei esker ironia, haserre, zalantza eta abarrez jabetzen gara.

Arrakastaren harira itzulita, esan behar dut

beti izan dela arrakastatsua Bertsolari Txapelketa nagusia. Orain arte jokatu diren 16 finalen ondorengo kronikek bi datu azpimarratzen dituzte: bata, jende asko izan dela guztietan eta bestea, gazte asko izan dela. Kontua da, 1962an Victoria Eugenia antzokia bete zuten 900 lagun eta Okendo plazara ateratako bozgorailuetatik entzun zuen zale andana zela "jende asko" eta gaur egun BEC-eko 13.500ak direla "jende asko". Gazteen kontuak ere badu, nik uste, aurreiritziekin zerikusirik. Alde batetik, beti modernoak diren gazteek tradizio zaharrei eustea ez delako ohikoa eta, bestetik, kronika idazleak, adinean gora doazena ziurrenik, beraiek baino gazteago ikusten dituztelako gainontzekoak.

Lau urtetik behin, best-sellerra sortu arren, urtean urtean badira merezi duten argitalpen bitxiak ere. Anjel Lertxundiri irakurri nion, BERRIAN duen zutabe eder horietako batean, liburu ona idazteko gogoia pizten duena dela. Horrelakorik gertatuko ahal da bertsoarekin!

Ekitaldi baten arrakastaren neurria gerora lagatzen duen arrastoak ematen du: ezpainetan bertso doinuak zituztela atera ziren entzuleek bertso gehiago entzuteko gogoia izatea, inguruko bertso saioetan edota telebista nahiz internetez (www.bertsoa.com); Barakaldotik bueltan irribarretsu itzuli ziren debatarrek bertsoak idaztea eta, aurren, udaberrira pasa den Zubeltzu sariketan aurkeztea edo Debako ostiraletako bertso eskolan hitzekin, ideiekin, euskararekin jolastea.





Debako Gazte Asanblada

13. URTEMUGA, IRUDITAN:



Eskerrak eman nahi genizkizueke 13. urtemuga honetan parte hartu duzuen haur, gazte zein heldu guztioi, baita Debako Udaleri eta Arrano Elkarteari ere, zuen guztien laguntzarekin hau guztia errazagoa izan delako.

Gazte, borrokari, antolakuntzari, etorkizunari heldu!




Patxi Aldabaldetrecu Bekaren azken irabazleak aurkeztu du bere liburua

“Remedios naturales y técnicas curativas de la zona de Deba-Itziar”. Horixe da Patxi Aldabaldetrecu ikertzaile eta idazle debarra zenaren omenez Debako Ostolaza Kultur Elkartek antolatutako bekaren ondorioz argitaratu den seigarren lana. Abenduan aurkeztu zen liburua, Kultur Elkartearen.

Maria San Juan Gonzalez gaztea da liburuaren egilea. Deban jaioa 1991. urtean, Medikuntzako Lizentziatura ikasten dihardu Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun, bosgarren mailan dago, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Gunean.

“Remedios naturales y técnicas curativas de la zona de Deba-Itziar” liburua gazteleraz idatzita dago, eta Deba Bildumaren seigarren alea da. Patxi Aldabaldetrecu bekaren deialdia bi urtetik behin egiten da, eta sarituek hainbat hilabeteke epea izaten dute lana burutzeko. Azken deialdiko epaimahaia Roque Aldabaldetrecuk, Felix Irigoyenek, Jose Maria Izagak eta Javi Castrok osatu zuten. Haien esanetan, Maria San Juanek aurkeztutako proposamena izan zen “interesgarriena”, gazteak liburuan landutako gaiaren inguruan ez baita antzeko ikerketarik burutu aldezturik gure herri inguruan. Irabazleak 4.000 euroko saria lortu zuen, eta dagoeneko ikusi du argia bere ikerketa lanak.



FITXA

- Egileak: Maria San Juan Gonzalez.
- Argitaratzailea: Debako Ostolaza Kultur Elkartea.
- Hizkuntza: Gazteleraz.
- Argazkiak: Maria San Juan Gonzalez eta M^a Lourdes Gonzalez Martin.
- Maketazioa: Kaioa A.S.P.
- Ale kopurua: 300.



Besteak beste, inguruetan erabiltzen diren sendabelarren gaineko informazioa bildu du egileak. Irudian, Kalendula eta Kamamila.

MATRIKULALDIA ZABALIK

Izena emateko epea otsailaren bukaerara arte.

Etor zaitez eta informazio guztia emango dizugu.

UDAL EUSKALTEGIAK
ikasturtecurso 13/14



Ifar kalea, 12
20820 DEBA
Tel.: 943 192 236
debabe.deba@telefonica.net



UDAL EUSKALTEGIAK
ikasturtecurso 13/14





Zoro Feria 2014



Ferian banatutako sariak

Urte berriko ferian, Txillarre baserriko Peio Rubiok irabazi zuen **barazki lehiaketa** -iaz ere berak lortu zuen lehenengo postua-. Elgoibartarrak 300 euroko saria eskuratu zuen, Alfonso Gonzalez, Ignacio Javier Larrañaga eta Joseba Elosuak osatutako epaimahaiak hala erabakita. Bigarren eta hirugarren postuan, berriz, Arizaga baserriko (Soraluze) Ezozi Etxeberria eta Itziarko Doniene-Berri baserriko Miriam Arrizabalaga gelditu ziren, hurrenez hurren.

Frutei dagokienez, lehenengo saria Mutrikuko Sagarmña baserrira eraman zuen Antonio Iparragirrek -posturik onena aurkezteagatik ere bera saritu zuten-; bigarren saria Edurtzeta Atutxari (Igorreko Jauriberrigoikoabehekoa baserria) eman zioten eta hirugarren saria Maria Etxezarretak (Gabiriako Agerre-Berri baserria) lortu zuen.

Doniene-Berri baserriak jaso zuen herriko posturik onenari eskainitako saria (150 euro). Eta, bestetik, Arruan Zahar baserriko Josefa Salegi ere saritu zuen epaimahaiak, "hobekien zaindutako basoa" berea zelakoan.

Gazta lehiaketako epaimahaia Joxe Ramon Agiriano, Mireia Alonso, Jesus Artola, Josu Mugerza, Pili Manterola, Maribi Altzibar eta Xabier Osak osatu zuten. Lehen saria (350 euro) Olaberriako Aizpea Elkarteari eman zioten; bigarren saria, Zabaletari (Araba); eta, hirugarrena Idiazabalgo Aranburu Elkarteari. Andutzene baserriko M^a Jesus Gurrutxaga izan zen herriko lehena.

Debabarreneko **Ezti lehiaketako** epaimahaiak, bestalde, hiru sari banatu zituen: Arrasateko Garbiñe Aramendi (140 euro), Debako Julian Villena eta Nagore Dorronsoro (110 euro) eta Soraluzeko Erlatz dira hiru sarituak.



Urrezko Aizkora eta Juan Jose Agirregabiriari omenaldia



Pasa den urtarrilaren 5ean, Deban, 4. urtez jarraian ospatu zen Urrezko Aizkoraren saioa.

Aurtengoan, aizkolariez gain harri-jasotzaileek ere Urteberriko Lehiaketa izan zuten.

Olasagasti eta Cañavares aizkolaria Azpilicueta eta Saralegiren kontra aritu ziren, eta lehenengo bikotea atera zen garaile. Harri-jasotzaileak ere bikoteka aritu ziren: Izeta II eta Lopetegi, Izeta III eta Eizmendiren aurka. Kasu honetan ere lehenengoak izan ziren irabazle.

Jaialdiaren hasieran Debako Udalak Juan Jose Agirregabiria eskertu zuen Debako herria hain ederki ordezkatu izanagatik. Jadanik txinga probetarik erretiratu egin da. Alkateak zorionak eman zizkion herri osoaren izenean bere kirol ibilbide handi eta luzeagatik.

Gazte gaztetatik, 20 urte inguru zituenetik, lehendabiziko aldiz Itziarko Kopraixetan plazaratu zelarik, ondoren hainbat eta hainbat proba eta txapel irabazi ditu. Besteak beste, Euskadiko txapelkun izan da 9 aldiz, Gipuzkoako txapelkun 15 baino gehiagotan eta beste hainbat aldiz 7 probintzietako txapelketetan. Bere kirol ibilbidea bukatu aurretik, orain dela hiru urte, Aldats frontoian lortu zuen oraindik gainditu ez den munduko errekorra: 1.028,00 mko distantzia 50 kg.ko txinga parearekin. Horregatik Aldats frontoiko horman plaka bat ipini da marka horren adierazle modura.

Lerro hauetatik eta debar guttion partez hemendik aurrera bizitzarik onena opa diogu.

*Axier Oñederra
Kirol eta gazteria zinegotzia*





GABON BEREZIAK GAZTELEKUAN!!!

Urtero bezala, gabon hauetan ekintza pila izan dugu Gaztelekuan: ping-pong eta billar txapelketa, diskoteka, zinema-irteera, twister lehiaketa, Debacup...

Baina aurtengoa urte berezia izan da guretzat guztiontzat, Osioko lokal berriaren lehen gabonak pasatzeaz gain, Gaztelekuaren X. urtemuga ospatu dugulako. Hamar urte igaro dira, ilusioz betetako urteak, eta egindako urteroko ekintzak ere ugariak izan dira: Euskararen Eguna, San Juanetako jolasak, Inauterietan haurrentzat prestaturiko aktibitateak, sexu astea, Uraren Eguna...

Urtemugarekin jarraituz, aben-

duaren 26an hamar urteak laburtzen dituen argazki erakusketa bat egin genuen guztion artean eta, ondoren, arratsalde osoa urte hauetan Gaztelekutik pasa diren gazteek sortutako bideoak ikusten pasa genuen: Santiagoko Bideko pelikula, Holandara eta Saharara joan gineneko bideoak, Beldur Barik eta Gazteforum lehiaketarako prestatutako laburmetriak...

Hurrengo egunean, abendua-
ren 27an, ostiralean, goizean goizetik hasi ginen 12-16 urte bitarteko belaunaldien arteko olinpiadekin. Ondoren, 150 gazterekin bazkaria egin genuen Gaztelekuan eta, azkenik, Gaztelekuan

dauden eta bertatik pasa diren gazteek egindako show eta kontzertuez gozatze-ko parada izan genuen. Musika emanaldiek jende andana bildu zuten, Mattin Osa eta Jone, Oldarkor eta Aitor Gonzalez eta Bollain DJ-en eskutik.

Hala ere, burututako ekintzez gain, denbora luze honetan Gaztelekutik pasa diren gazte guztiaren eraikitako harremanekin geratzen gara. Ahaztezinak diren istorio pila bat utzi dizkigute eta egunerokotasunean sortu diren anekdotak zenbaezinak izan dira.

Ea hamar urte barru ere berdi-na esateko moduan garen!

Gaztelekuko hezitzaileak

Seven Clovers
Irish pub
Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

 Bar LOREA
"Orotariko tartak etxean eginak"
Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

BERRIKETAN GAZTEA

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.
2014ko urtarila

Nola bizi ditugu gabonak?

Gabonak igaro dira eta guk garai hau aprobetxatu nahi izan dugu urteko ospakizun honi buruzko gogoeta txiki bat egiteko:

Kristaua zen jai hau, baina orain bere esanahia galdu du. Etxe askotan jaiotza jarri dugu, baina benetan erlijio kutsua eman diegu jai hauei?

Orain, lehen baino gutxiagok bizi dute erlijiotasuna, eta jende gutxiago joaten da mezetara. Baina Jesusen jaiotzarekin lotutako hainbat ekintza burutu dituzte umeek gabonetan zehar: jaiotza biziduna, jaiotzen lehiaketa...

Dendetan eta kaleetan nabaritu da gabonen presentzia. Eskaparateak gabonetako apaingarriak beterik egon dira eta herriko merkatariek, krisiarengatik urte

gogor bat izan ondoren, garai honetan salmenta onak eduki nahi izan dituzte urteko emaitzak hobetzeko. Bestetik, kaleak apaintzeko ere birziklatutako materiala erabili dute.

Ikusten denez, gaur egun gabonak loteriarekin, opariekin eta kontsumoarekin lotzen ditugu. Familian biltzeari ere ez diogu hainbeste garrantzia ematen, eta horren erakusle da gero eta jende gehiago joaten dela kanpora oporrak pasatzera. Bestetik, asetu arte jaten dugu familia askotan, baina munduko eta gure inguruko familia asko janari faltan daude. Kontraste handia da hori eta zer pentsatua ematen du.

Debalai, gabonak girotu eta bezeroak erakarri nahian



Gaur egun, gabonetako opariak erosteko, merkataritza zentro handiek jende asko erakartzen dute eta, horregatik, Debako dende lan handia egiten dute herriko bezeroak beraien dendetara joan daitezen. Gainera, krisian gaudenez, diru gutxiago bideratzen da arropak edo jostailuak eta gainerako opariak erostera eta dende produktuak saltzeko arazoak dituzte.

Herriko merkataritza bultzatzeko hor dago Debalai. Debako merkatarien eta ostalarien elkarte da Debalai eta, aurten ere, elkarte honek ekintza asko burutu ditu: umeentzako futbol txapelketa Debako hondartzan, gisatu lehiaketa, balkoi loreduen lehiaketa, plaza zaharrean jarritako denboraldi bukaerako "gangak"...

Gabon hauetan, urteko azken ekintza bezala, Debalai merkataritza elkarteak bere bazkideen artean 10.000 gabonetako postal banatu ditu, bezeroei oparitzeko. Postal hauek dituztenek zozketa batean hartzen dute parte.

Zozketaren saria Gabonetako saski handi bat izan da. Abenduaren 22an egin zuten zozketa eta irabazleak 1.500 euroko balioa duen saria lortu zuen, baita Debalaiko edozein dendatan gastatzeko 300 euroko txeki bat ere.

EGILEAK: Unai Macias, Maite Aldabaldetrekua, Julen Aristi, Kimez Alberdi eta Aitor Gonzalez.



ELKA RRIZ KETAK



Patxi Aizpitarte
Gabonei eta kristautasunari buruz gehiago jakin nahian, Patxi Aizpitarte Debako apaizarengana jo dugu apaizetxera:

Zer dira gabonak kristautentzako?

Guk ospatzen duguna Jesusen jaiotza da eta guk bi ospakizun nagusi dauzkagu. Bat Jesusen Pazkoa da, hil ondoren jaikoa berpiztu egin zela sinesten dugu, eta hori pazkotan ospatzen dugu. Orain, gabonetan, bere jaiotza ospatzen dugu. Laugarren mendean hasi zen ospatzen duguna, ilusioz eta pozez.

Jendeak ez ditu gabonak familiarekin ospatzen. Zer iritzi duzu?

Nik uste dut, hemen, Euskal Herrian gabon jaiak badutela famili ikutua ere. Urtezahar, urteberri... desberdina da. Baina gabonak, eguberriak, oraindik familia giroan ospatzen direla uste dut. Nik behintzat ospatzen dut, denekin elkartuz. Niri iruditzen zait oso kristaua dela familia giroko jaia delako berez. Jaikoa giza familian Jesusen bidez sartzan dela ospatzen dugu. Egun horietan elkarri oparriak egiten dizkiogu, familia giroan ospatzen dugu.

Txikitatik hona, zer eboluzio izan dute gabonek?

Gertatzen dena da nik urte dezente ditudala, *kar-kar-kar*. Ume gineanean, gaurko bizitza kalitatea ez genuen, xumeagoak ziren gure gazetako gabonak. Hemen urte oso onak izan dira, eta kontsumoa ere gehitu egin da. Publizitatearen bonbardeoa gero eta handiagoa da eta baliteke gabonak kontsumo-giroarekin, kontsumoarekin lotzea... hori hor dago. Gure gizartea sekularizatzen joan da, neurri batean, eta gabon kristaua intentsitate gutxiagorekin bizi dugula uste dut. Baina, niretzako, festa hunkigarriak eta politikak dira.

Gabonetan, jendeak oparietan, turroian eta halakoetan bakarrik pentsatzen du orain. Zer iruditzen zaizu?

Esan dudan bezala, kontsumismo puntu bat hartzen dute gabon jaiak. Beste alde batetik, gabonetan, elkartasuna hor dago. Orain dela aste batzuk, Filipinasen gertatu zen tragedian zeuden pertsonen laguntzeko diru dezente bildu genuen; Gipuzkoako elikadura bankuak ere lagundu zuen eta hor jendeak elkartasun handia azaldu du. Guk Martuteneko presozentzat kanpaina bat ere egin genuen.



Lourdes Olano
Gabonek herriko merkatarientzat izan duten garrantziaz mintzatu zaigu Olano kirol-dendako Lourdes (Debalai elkar-terko zuzendaritzako kide ere bada):

Zer funtzio du merkatarien elkarte batek?

Elkarte baten bidez herriko dendek herria dinamizatu nahi dugu, hainbat ekintza antolatuz, ekonomia lokalean edo gertuko ekonomian eragiteko.

Zer egiten duzue horretarako?

Herrian lehiaketak, outleta, desfilea, gabonetako promozioak, gure bazkide diren dendarietzako formakuntza ikastaroak...

Gustura bazkideen parte-hartzearekin?

Bai, elkarteren bidez indarrak biltzea lortzen dugu baina horretarako ez dugu denbora izaten.

Zein abantaila eta desabantaila dituzte dendak txikiek merkatalgune handien aurrean?

Oso zaila daukagu merkatalgune handiekin lehiatzea: marketinga, kopuru handiak erosteko duten ahalmena, salmenta prezioa. Baina guk, ordea, arreta personalizatua eman dezakegu eta produktu ezberdinak eta hobek askaini.

Gabonetan saldu duzuenak garrantzia handia al du zuen emaitzetan? Udako garaia garrantzitsuagoa al da?

Gabonek sektorearen arabera garrantzia handia dute, baina beste sektore batzuetan ez da hainbeste igartzen. Hala ere, krisiarekin ez dago garai batean zegoen alaitasunik dirua gastatzeko. Udan, eta bereziki azkenekoan, jende gehiago egon denez, dendetan hori argi nabaritu da.

LEHENENGO EBALUAKETA, AZTERKETAK...

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean lehenengo ebaluaketari buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Nola joan da lehenengo ebaluaketa?
- 2.- Emaitezkin gustura al zaude? Dena gaintitu duzu?
- 3.- Zein ikasgaitan ibili zara ongi? Eta gaizki?
- 4.- Iaztik hona aldaketarik nabaritu al duzu?
- 5.- Azterketak egokiak iruditzen zaizkizu? Zure maila islatzen dute?



Xuban Loiarte:

- 1.- Erregular.
- 2.- Bueno. Ez.
- 3.- Fisika-Kimikan. Gazteleran.
- 4.- Bai, baina ez asko.
- 5.- Enrikerenak ez. Nire mailara ez dira azterketak iristen.



Julen Izagirre:

- 1.- Ondo ez.
- 2.- Ez. Ez.
- 3.- Frantsesean eta plastikan. Maten.
- 4.- Bai.
- 5.- Ez.



Laura Aranegi:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai. Bai.
- 3.- Naturren. Maten.
- 4.- Pixka bat.
- 5.- Ez. Bai.



Mara de Maria:

- 1.- Ondo.
- 2.- Ez. Ez.
- 3.- Artisautzan. Gazteleran.
- 4.- Bai.
- 5.- Ez. Ez.



Maite Fernandez-Quejo:

- 1.- Ondo.
- 2.- Bai. Bai.
- 3.- Musikan. Gazteleran.
- 4.- Bai.
- 5.- Ez. Bai.




Julen Maza:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai. Bai.
- 3.- Denetan. Batean ere ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Bai.



Jon Yarza:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai. Noski.
- 3.- Guztietan, gazteleran izan ezik.
- 4.- Pixka bat.
- 5.- Bai, oraintxe bertan ez dago ikasleak ebaluatzeko beste modurik. Eta, beste moduren bat egongo balitz, hori erabili beharko litzateke.



DenBord-pasaak

TXISTEA

*Gizon batek andrea haurdun zuen eta, klinikan zegoela jakinik, korrika sartu zen larrialdietara:
 —Doktore jauna, doktore jauna, andreak haurra izan du eta ikusi nahi nuke.
 — Nor zara?
 — Xabier Martin.
 — Bai, hirugarren solairuan.

Hirugarren solairura joan da, eta beste ate bat ireki eta...
 — Doktore jauna, doktore jauna, andreak haurra izan du eta ikusi nahi nuke.
 — Begira, zure andrea oso ondo dago. Ez da inongo arazorik izan, baina semeak...
 — Zer gertatu da? Zer gertatu da semearekin?
 — Ez, gertatu ez da ezer gertatu. Oxigenoa jarri behar izan diogu.
 — Kaka zaharra! Nik Andoni jarri nahi nion.



HIZKI-SOPA

Bizkaiko herriak (12)

A	K	I	R	R	A	B	R	G	G
A	A	O	I	R	U	A	S	A	B
A	I	G	N	U	M	E	I	L	A
R	A	B	D	D	O	A	R	D	I
Z	A	L	L	A	A	A	I	A	D
O	E	M	R	E	B	R	M	K	E
E	R	R	O	G	I	A	R	A	B
B	A	R	A	K	A	L	D	O	B
O	K	Z	O	R	O	A	Z	A	A
A	B	B	E	B	R	A	K	B	A
O	B	U	L	B	L	I	D	A	M
O	B	E	A	R	O	R	B	R	Z

GURUTZEGRAMA



LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA-TALENTA 2013-2014

Aitor Gonzalez
 Alex Martija
 Unai Matias
 Ekaitz Zubimendi
 Kimetz Juaristi

Maite Aldabaldetrekua
 Alex Alonso
 Julen Aristi
 Josu Arufe
 Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meabasterretxea

Animadeba jaialdiko gortina lehiaketa Poloniako gazte batek irabazi du

Jaialdiaren antolatzaileak pozik daude seigarren edizioak izan duen harrerarekin

Abenduaren amaieran ospatu zen Debako Animazio Zinemaldiaren seigarren edizioa eta antolatzaileak gustura daude jaialdiak izan duen harrerarekin. Izan ere, Animadebak animaziozko zinema ezagutarazi eta sustatzea bilatzen du -baita helduen artean ere-, eta urte amaieran antolatutako hitzorduetara herritar ugari hurbildu zela nabarmendu dute arduradunek. Agirre jauregiko ispiluen gela beteta egon zen hitzordu gehienetan.

Jose Luis Rebordinos Donostiako Zinemaldiko zuzendari ezagunaren hitzaldiarekin abiatu zen jaialdia. Oro har, zinemagintzari buruz aritu zen hizlaria, eta baita animazioaren generoak Euskal Herrian bizi duen egoeraz ere. Besteak beste, bere iritzi eta esperientzia pertsonal nahiz profesionalak aintzat hartuta, Animadeba bezalako jaialdien garrantzia ere nabarmendu zuen Rebordinosek.

Nazioarte kutsua eman dio burutu berri den gortina lehiaketak Animadebari, 2014ko jaialdia iragartzeko balioko duen gortinaren irabazlea Julia Zajusz poloniarra da eta. Guztira 13 lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta epaimahaiak Zajuzsen "Dart" lana saritzea erabaki zuen, gortinaren "orijinaltasuna eta jaialdiaren logoaren erabilera ederra" nabarmenduta -www.youtube.com/watch?v=jBSNe-y-6dE helbidean ikus dezakezue-. Epaimahaia Bego Vicario zinegile eta animazio irakasleak (Animaziozko Goya sariduna ere bada), Nontzeberriko kideek eta Izibene Oñederra zinegileak osatu zuten.



Julia Zajusz, gortina lehiaketako irabazlea.

Udaleko kultur zinegotziarekin eta kultur teknikariarekin elkarlanean, besteak beste, animaziozko zinema gertutik ezagutzen duten Aitor Oñederra debarra eta Maitane Puebla gazteak aritzen dira Animadeba jaialdiaren antolakuntza lanetan buru-belarri murgilduta. Haiek gogorarazi bezala, abenduan burututako hitzordu eta emanaldiei harrera polita egin zaie oro har, bai Agirre jauregian burututakoei eta baita Gaztetxean eta Maxi Tabernan eskainitakoei ere. Gari musikariak Maxin egindako kontzertua aipatu dute, adibidez, eta bestetik, nobedade bezala, jaialdiaren baitan lehenbizikoz film bat bertsio originalean aurkeztu zela ere azaldu dute. "Mary & Max" izenburuko luzemetraia azpituluekin eskaini zuten eta "bertaratutako ikusleek harrera polita egin zioten".



Jose Luis Rebordinos, Mª Fran Agirregabiria zinegotzia, Aitor Oñederra eta Maitane Puebla.



Izibene Oñederra zinegilearen "Hotzarak, for your own safety" filmaren emanaldia.

Irudiak: Ander Salegi



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA



Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



MAXI BAR

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Giro ezin hobea eta parte-hartze handia V. San Silbestrean

Adin guztietako korrikalariak elkartu ziren urte zaharrari agur esateko lasterketa herrikoian. Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeak Debako Udalaren laguntzarekin antolatutako San Silbestrearen bosgarren edizioa ospatu zen abenduaren 31n, eta guztira 444 parte-hartzaile bildu ziren hitzorduan.

Haurrentzako bi lasterketa antolatu ziren herri barruan (adinaren arabera ibilbide jakin bat betearaziz) eta helduek 5,2 kilometroko lasterketa egin behar izan zuten. Aritz Ruiz de la Torre izan zen garaile gizonezkoetan (16 minutu eta 30 segundo behar izan zituen proba amaitzeko) eta Mariaje Castro, berriz, emakumezkoetan. Horiez gain, Igon Mantzizidor izan zen debarrik azkarrena.



Aiako Olibidenen idiek irabazi dute aurtengo idi-proba lehia

Aurtengo Urteberriko idi-probetan Aiako Olibiden izan da garaile. Bere idiek burutu dute marka onena, 50 plaza eta 3,96 metro eginda (iazko irabazlearen marka hautsi zuten, gainera).

Mungiara joan da bigarren saria, Lopategiren idiek egindako lanari esker (49 plaza eta 5,20 metro). Eta

Billelako Iñaki Lopategi -iazko garaileagelditu da hirugarren postuan, bere idiek 48 plaza eta 3,81 metro egin ostean.

Urtarrilaren 1ean hasi eta 7an amaitu dira aurtengo idi-probak. Txapelketak sei jardunaldi izan ditu guztira eta hemezortzi parte-hartzaile aritu dira lehian. Emoziorik ez da falta

izan, gainera, Euskal Jolasen. Izan ere, zaleek azken eguneko saiora arte itxaron behar izan dute lehiaketaren irabazlearen izena ezagutzeko, Aiako Olibidene hilaen 7ko gauean lortu baitzuen lehenbiziko jardunaldian Mungiako Lopategik ezarritako marka haustea. Zaila zirudien, baina lortu zuen.



Ander Salegi



Ander Salegi

Mari Domingik eta Olentzerok ez zuten huts egin urteroko hitzorduan



Periko astoaren laguntzarekin, opariak banatzera jaitsi ohi dira urtero-urtero Olentzero eta Mari Domingi gure herrira. Hori egin aurretik, ordea, haurrak ezagutu eta haien eskutitzak jasotzeko ohitura ere badute gure protagonistek. Eta azken eguberrietan ere ez zuten huts egin. Eskolan lehenengo, eta herriko kaleetan gero, harrera beroa egin zieten ehunka lagunek.

Gabon kantak abestuz egin zieten ongietorria plaza zaharrian, eguerdi partean. Kalejira txiki bat eginda, eta eguraldi txarra zegoela ikusita, gero Aldats pilotalekuan hartu zuten aterpe guztiek. Protagonista magikoek haurren azken eskutitzak jasotzen zituzten bitartean, giro polita sortu zen pilotalekuan: trikitilari eta txistulariak, irribarre urduriak, salda beroa eta txorizo muturra... hori guztia, beste behin ere, jendearen borondateari eta guztien elkarlanari esker. Eskerrik asko guzti-guztiei!



Birziklatutako materialez egindako gabonetako apaingarriak, bigarren urtez

Bigarren urtez, Debako Udalak ohiko gabonetako argiekin batera berrerabilitako material birziklagarriarekin egindako apaingarriak jarri ditu Debako eta Itziarko kaleetan. Apaingarri horiek Mendata eta Luzaro ikastetxeetako ikasleek, Eguneko Zentroko erabiltzaileek eta Arbil elkarteko kideek egin dituzte. Eta, Udalak jakinarazi duenez, zakarrontzira edo birziklatzera doazen hondakinak

–plastikozko poltsa eta botilak, hain zuzen ere– erabili dira apaingarri jasangarri horiek egiteko. Etxeetatik, Mendata ikastetxearen bitartez eta herriko hainbat jatetxeren eskutik lortu da material gehiena. Hortaz, guztiek egin duten lana eta ahalegina eskertu nahi du Udalak.

Hondakinak murrizteko helburua duen jarduera honek Debegesaren laguntza izan du.





Agenda

Urtarrilak 25, larunbata

-12:00. **Patata tortilla lehiaketa**, Debako Libre Taldeak antolatuta. Foruen plazan.

Urtarrilak 31, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioa, Foruen plazan.

Otsailak 2, igandea



-**Ipuin kontaketa**, herritarrak herriko neska-mutilei kontari. Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko da. Saioak: 17:00etan, LHko 1. 2. eta 3. mailakoentzat; 18:00etan, LHko 4., 5. eta 6. mailako neska-mutilentzat.

Otsailak 3, astelehena

-San Blas eguna.

Otsailak 4, asteartea

-Santa Ageda bezpera.

Otsailak 15, larunbata

-**Libre Krossa**, Debako Libre Taldeak antolatuta.

Otsailak 16, igandea



-8:30. **Mendi irteera: Arantzazu-Artzanburu-Urbia-Arantzazu**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

Lehiaketa

-VI. **Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa**. Informazioa eta oinarriak: www.elkar.com atarian.

Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Horretarako, bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, eta ilustrazioak ipuin bilakatu besteez.



Ikastaroak

-**KZguneak** ikastaro ugari eskainiko ditu otsailean (arratsalde): sare sozialak, oinarriko interneta... Euskaraz eta gaztelerez izango dira

ikastaroak.

Informazio gehiagorako, kontsultatu www.kzguna.net ataria edo deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira.

XI. Topaldia Durango

-Euskaltzaleen Topaguneak **XI. Topaldia** antolatu du urtarrilaren 30erako, Durangoko Elkartegian. "Geure ardura pertsonal eta kolektiboa aktibatzen" izeneko jardunaldian, hizkuntzarekiko motibazioa izango da gai nagusia. Besteak beste, hizkuntza batean edo bestean aritzera zerk animatzen gaituen ikusi edota euskara erabiltzearen aldeko euskaltzaleak sentsibilizatzeko zein tresna edo diskurtso

erabil genitzakeen aztertuko da bertan. Izena emateko edo informazio gehiagorako: www.topagunea.org.



English Academy
NORTH STREET ENGLISH



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urtarrilak 20, 21, 22, 23.**
otsailak 7, 8, 9.

Burgoa Zuazo: **urtarrilak 24, 25 eta 26.**
otsailak 3, 4, 5, 6.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 8 eta 15
BURGOA ZUAZO: urtarrilak 25
otsailak 1

9:30 - 13:30



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

Zugandik ZUGANA

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe. 20820 DEBA
943 029 186



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



- INPLANTEAK
- PADI-a (haurren programa)
- ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PERIODONTZIA
- ENDODONTZIA
- PROTESI FINKO / MUGIKORRA
- ODONTOLOGIA OROKORRA



NORA HORTZ KLINIKA

Azpilgoeta 5
Mendaro

943 033 575

Lehen bisita, diagnostikoa eta aurrekontua doan.



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Affonso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Okulsoian Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguzul



MUTUAK ETA ASEGURUAK
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguzul!

